

Uholdeei buruzko informazioa emateko web aplikazio bat garatzea

Aurrekontua: 13.900 €

Deskribapena:

Añarbeko Urak-en sentikorrak gara Urumea ibaiaren ertzeko herrietako biztanleek uraldi-egoeretan urtegia husteko egiten diren maniobrak zuzenean ezagutzeko duten interesarekiko. Gardentasuna hobetzen jarraitzeko, aplikazio mugikor bat garatuko da, edozein erabiltzaileri informazioa denbora errealean emateko. App-ak hainbat atal izango ditu, hala nola kontsulta-gunea (uholdeen kudeaketari buruzko informazio interesgarria, gomendioak, kudeaketa-parametroak...), egoera-partiak (egoeraren informazio puntuala eta presaren maniobrak), datuak denbora errealean (prezipitazioa, urtegia husteko emariak, joerak, iragarpen meteorologikoa...), abisuak eta alertak (tresnaren erabiltzaileek berehala jasoko dituzte beren gailuan igortzen diren abisu eta alerta guztiak), bai eta zalantza eta kontsulten atal bat ere.

Desarrollo de una aplicación web para información de episodios de avenidas

Presupuesto: 13.900 €

Descripción:

En Aguas del Añarbe somos sensibles al interés de los habitantes de las poblaciones ribereñas del río Urumea en conocer de primera mano las maniobras de desembalse que se realizan en la presa en situaciones de avenida. Con el fin de seguir mejorando la transparencia se desarrollará una aplicación móvil que suministre información en tiempo real a cualquier usuario. La app dispondrá de distintos apartados como espacio de consulta (con información de interés acerca de la gestión de episodios de avenidas, recomendaciones, parámetros de gestión...); partes de situación (con información puntual de la situación y maniobras de la presa); datos en tiempo real (con los principales parámetros como precipitación, caudales de desembalse, tendencias, previsión meteorológica...); avisos y alertas (los usuarios de la herramienta recibirán de manera inmediata en su dispositivo todos los avisos y alertas que se emitan); así como un apartado de dudas y consultas.